


Aurrekontuko partida



Aurrekontu publikoak Jaurkitaren estrategiari lotutako ekonomia- eta finantza-plana dira. Urterokoak dira, eta bertan zehazten dira lortzea espero diren diru-sarreraren aurreikuspenak eta ekitaldian zehar gehienez egin ahal izango diren gastuak (izaera mugatzailea). **Erakunde publiko bakoitzak bere aurrekontuak ditu, eta aurrekontu bateratua aurrekontu horiek batu eta barne-transferentziak konpentsatzearen emaitza da (udalaren eta erakunde autonomoen edo sozietate publikoen arteko transferentziak).**

Foru-kontabilitateko instrukzioak sailkapen funtzional eta ekonomikorako irizpideak finkatzen ditu probintziako toki-erakunde guztientzat; sailkapen organikoa, berriz, udalak berak definitzen du.

Diru-sarreraren partidek ez dute sailkapen organikorik edo funtzionalik erabiltzen; izaera ekonomikoarekin, deskribapenarekin eta zenbatekoarekin bakarrik zehazten dira.

Gastua esleitzen zaion **unitate organikoa islatzen du** (erakunde arlo eta/edo atalen antzekoa). Udalak bakarrik erabiltzen du sailkapen hori, eta gainerako udal-erakundeek ez dute erabiltzen.

Sailkapenak bi digitu erabil ditzake.

Hona hemen adibide batzuk:
 21-> Hirigintza
 23-> Ingurumena
 25-> Kontratazioa, obrak eta zerbitzuak
 31-> Ogasuna
 33-> Ondasuna
 40-> Gizarte politika
 41-> Gizarte ongizatea
 42-> Adinekoak
 51-> Berdintasuna
 53-> Lankidetzatza
 61-> Lanbidea
 72-> Hezkuntza
 112-> Parte-hartzea

Sailkapen funtzionalak **gastuak biltzen ditu helburuaren eta horien bidez lortu nahi diren jomugaren arabera**. Udalak bakarrik erabiltzen du sailkapen hori, eta gainerako udal-erakundeek ez dute erabiltzen.

Sailkapenak lau digitu erabil ditzake (ezkerretik eskuinera): Funtzio-taldea, Funtzioa, Programa eta Azpiprograma (gehienez 2 dig).

Significado 1º dígito o Grupo de función:
 0-> Deuda pública
 1-> Servicios generales
 2-> Protección civil y seguridad ciudadana
 3-> Seguridad, protección y promoción social
 4-> Producción de bienes públicos de carácter social
 5-> Producción de bienes de carácter económico
 6-> Regulación económica de carácter social

Gastuaren edo diru-sarreraren izaera ekonomikoa islatzen du, unitate organikoa eta esleitzen zaion funtzioa edozein direla ere.

Sailkapenak bost digitu erabil ditzake (ezkerretik eskuinera): Kapituluak, Artikulua, Kontzeptua, Azpikontzeptua (gehienez 2 dig).

Sarrerak

1. digitu edo Kapituluaren esanahia:
 1-> Zuzeneko zergak
 2-> Zeharkako zergak
 3-> Tasak eta beste baliabide batzuk
 4-> Transferentzia arruntak
 5-> Ondare sarrerak
 6-> Benetako inbertsioen besterenganaketa
 7-> Finantza-aktiboak

Gastuak

1. digitu edo Kapituluaren esanahia:
 1-> Pertsonal gastuak
 2-> Ondasun arruntak eta zerbitzuen gastuak
 3-> Finantza gastuak
 4-> Transferentzia arruntak
 6-> Inbertsio errealak
 7-> Kapital-transferentziak
 8-> Finantza-aktiboak
 9-> Finantza-pasiboak

Gastuen partidari lotutako deskribapenak honako hauek izango lirateke:

Sailkapen Organikoaren arabera
 25-> Kontratazioa, obrak eta zerbitzuak.

Sailkapen Funtzionalaren arabera
 4-> Gizarte-ekintzako ondasun publikoen ekoizpena
 4-> Ongizate komunitarioa
 2-> Zaborrak biltzea eta kale-garbitzea
 2-> Kale-garbitzea

Sailkapen Ekonomikoaren arabera
 2-> Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak
 2-> Materiala, hornidurak eta bestelakoak
 7-> Beste enpresa batzuek egindako lanak
 01-> Garbiketa-gastuak

Mendeko sozietate publikoen kasuan (Bidebi SL eta Behargintza Basaur-Etxebari SL), haien aurrekontua diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena da, izaera mugatzailerik gabe. Ez daude administrazio publikoen aurrekontu-kontabilitateko araubide horren mende, merkataritza-sozietateen kontabilitate-erregulazioaren mende baizik.